

José Javier Esparza Abaurrea

Iruñean jaio zen 1970eko uztailaren 20an. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu.

Pedagogian lizentziatua da Nafarroako Unibertsitatean eta OHOk irakaslegoan diplomatua Nafarroako Unibertsitate Publikoan; Nafarroako Unibertsitate Publikoan ere masterra egin zuen Zuzendaritza eta Kudeaketa Publikoan.

1996. urtetik irakasle izan da Lehen Hezkuntzan "Luis Amigó" ikastetxean. 1999-2003 eta 2003-2007 legealdietan Agoitzeko alkate izan zen eta Cederna-Garalur Landa Garapeneko Elkarteko lehendakaria. Gainera, 1999-2007 artean Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioko Batzorde Exekutiboko kide izan zen.

2007-2011 legealdian Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari-gerentea izan zen, eta 2011ko uztailetik Nafarroako Gobernuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-gerentea izan da.

Carlos III, 2. 31002 PAMPLONA | T. 848 42 77 00 | F. 948 22 76 73 | prensa@navarra.es | www.navarra.es